

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorako AI-02 jarduketa integratua-
ren urbanizazio-proiektua behin betiko onartzea.**

2026ko uztailaren 21ean, Basauriko alkateak 3833/2026 Dekretua eman zuen Basauriko HAPOk AI-02 jarduketa integratuaren urbanizazio-proiektuari buruz. Dekretu horrek honako hau xedatzen du:

Lehenengoa: Behin betiko onartzea Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko AI-02 Jarduketa Integratuaren Urbanizazio Proiektuaren Urbanizazio Proiektua (Kareaga Goikoa, 9., 11. eta 13. zenbakiak), Leziaga 1995 Construcciones, S.L., merkataritza-sozietateak 2025eko abenduan aurkeztua, eta Alkatetzaren otsailaren 11ko 572/2026 Dekretuaren bidez hasieran onartua (Espedientea: URBANI/2025/3).

Bigarrena: Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, legez dagozkien errekursoak adierazita.

Hirugarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian argitaratzea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean.

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio orain jakinarazten den administrazio-egintza eman zuen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Berraztertze errekurtso hori administrazio-isiltasunez ezetsizat joko da, baldin eta, errekurtsoa jarri zenetik hilabeteko epean, haren ebazpena jakinarazten ez bazaio. Azken kasu horretan, jakinarazpen honen lehenengo paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, ezespena administrazio-isiltasunez gertatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aurretik adierazitakoari kalterik egin gabe, aurkaratzeko beste bide batzuk erabili ahal izango ditu, egoki iritziz gero.

Basaurin, 2026ko uztailaren 22an.—Alkatea, Asier Iragorri Basaguren